

## Musika-Músicak 20 urte betetzen ditu

Jaialdiak musika uholde bat ekarri du Bilbora eta erreferente izatera iritsi da mundu guztiko musikazaleen artean. Aurtengo edizioa berezia izango da urtemuga bat delako, eta baita ere, ezinbestean, bizi dugun egoeragatik. Aurtengo bere ardatza izango da bi mende luzez paradigma musikala izan den hiri artistikoki oparo bat, neurri batean musikaren beraren alegoria izatera iritsi dena.

Viena, arraza eta hizkuntza ugari inperio baten hiriburua, bidegurutze aberasgarri batean kokatuta zegoen. Kokaleku pribilegiatu horrek berekin zekarren orobat bidegurutze bat izatea ideia erlijioso, berezitasun nazional eta soinu-hizkuntza ugariengatik. Ezaugarri horiek guztiek bat egin zuten mota guztietako entzulego baten apetekin, publiko bat asezina bezain orojalea eta musika genero guztietako nobedadeen gose zena. Eskara hark Vienara bideratu zituen Europa osoko konpositore eta instrumentu-joleak, denen artean kokatu baitzuten hiria sorkuntza unibertsalaren abangoardian, turismo musikalaren jomuga erakargarri eta ospetsu bihurtuz.

Viena musikaren epizentro oparoa izan zen denbora guztian hiriak lanak izan zituen baita ere gatazkak gainditzen eta irtenbide bat aurkitzen politika, arte, pentsamendu eta bizikidetzaren labirintoari. Bizi dugun garai nahasi honetan, gure mundua sorkuntza artistikoak eta eredu kulturalak aldatzen dituen kinka larri batean dagoenean, gauza atsegina da murgilaldi bat egitea Vienan, hain ederki jakin baitzuen oihal liluragarri bat iruten partitura paregabez, aberats edo finez, espresionista edo arrazionalerik, entretenigarri edo katarsi eragilez, harizat hartuz mota guztietako estilo, dialekto eta genero musikalak.

Viena emankor hartan, oparotasunak, esperimentazioak eta sormenak bat egin zuten musikarekiko pasioarekin eta soinu-zuko esanahien bidez entzulearen ariman "eragiteko" asmoarekin, egungo garaia argiz jantziko dituen katalogo anitz, orijinal eta harrigarri bat elikatuz. Goza ezazue "liluren hiria" omen zen Viena haren sonoritateaz. Afektu musikalen edizio asko ditugu oraindik aurrean.

## Musika-Música cumple veinte años

El Festival ha traído a Bilbao música a raudales, logrando por ello ser una referencia entre melómanos de diversas latitudes. Esta edición, tan especial en su aniversario e irremediabilmente distinta, está dedicada a una ciudad artísticamente exuberante y paradigma musical durante dos largos siglos, tanto que llegó a convertirse casi en alegoría misma de la música.

Viena, capital de un imperio multirracio y políglota, estaba ubicada en un enriquecedor cruce de caminos. Esta situación privilegiada le colocaba también en una encrucijada de ideas religiosas, singularidades nacionales y lenguajes sonoros. Todas estas circunstancias enlazaron con los apetitos de un público de toda índole, tan voraz como omnívoro, que reclamaba novedades en todos los géneros de la música. La demanda atrajo a compositores e instrumentistas de toda Europa, que posicionaron a la ciudad en la vanguardia de la creación universal y en un atractivo y prestigioso foco de turismo musical.

Durante el período que duró el esplendor de Viena como epicentro de la música, la ciudad se entretenía también en sortear conflictos y en buscar la salida del laberinto de la política, el arte, el pensamiento y la convivencia. En este momento agitado que estamos viviendo, cuando el mundo se encuentra en otra encrucijada que altera las producciones artísticas y los modelos culturales, es placentero sumergirse en una ciudad que supo tejer, con hebras de estilos, dialectos y géneros musicales de toda naturaleza, un deslumbrante tapiz de partituras extraordinarias, suntuosas o delicadas, expresionistas o racionales, para el entretenimiento o para la catarsis, donde cualquier oído puede encontrar algo de su gusto.

En esta Viena fértil, la abundancia, la experimentación y la creatividad se unieron a la pasión por la música y a la intención de "afectar" el alma del oyente a través de los significados sonoros, alimentando un catálogo variado, original e imponente que iluminará estos días el paisaje. Disfruten de la sonoridad de quien se jactaba de ser "ciudad de ensueños". Nos quedan por delante muchas ediciones de afectos musicales.





